



Preso gaixoen eskubideen aldeko MOZIOA

Azken hamarkadetan, euskal herritarren gehiengoak, pertsona ororen giza eskubideen errespetua aldarrikatu eta eskatu du, zalantza gabe arbuia dituelarik beraien edonolako urraketak eta elkarrizketaren alde egin du gatazkak konpontzeko tresnatzat hartuz.

Euskal gizarteak demokrazia eta etika eskatzerakoan izan duen iraunkortasuna erabakiak hartzea bultzatzeko ezinbestekoa izan da, guztioi aro berri bati ekiteko aukera emateko. Indarkeriaren ondorioen aurrean, biktima eta presoaren aurrean, neurri berriak ezartzeko eta oinarri demokratikoak ez besterik erabiliz, gatazka politikoa konpontzeko aukerari heltzeko denbora.

Azken hilabete hauetan jakin izan dugu badirela presoak gaixotasun larriak dituztenak, eta presondegietan jarraitzen dutenak. Guzti honengatik, udalbatzak hurrengo hau onar dezan proposatzen dugu:

1.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia aplikatuz gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoaren baldintzapeko askatasuna eskatzen du.

2.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.

Dinora

2012-ko Irailaren 25an